

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI) 2012ko EKAINA

Euskal Autonomia Erkidegoan bidaiari-sarrerak % 1,1 jaitsi dira 2012ko ekainean

Ostatu-gauen kopurua % 0,6 hazi da

Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan 218.040 bidaiari-sarrera izan dira 2012ko ekainean, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 2.374 sarrera gutxiago; beraz, % 1,1eko jaitsiera izan da, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak gora egin dute Bizkaian, % 1,5, baina Araban eta Gipuzkoan beherakada izan da (% 1,4 eta % 4, hurrenez hurren).

Estatuko bidaiarien sarrerei dagokienez, EAE osoan % 2,2ko jaitsiera izan da. Estatuko bidaiarien presentzia handiagoa izan da Bizkaian, % 1,5 egin baitu gora, baina Araban % 3,8 eta Gipuzkoan % 6,4 jaitsi da. Atzeritarrei dagokienez, EAEn % 1 egin dute gora. Gipuzkoan % 0,6 jaitsi dira baina Bizkaian % 1,3 eta Araban % 6,2 egin dute gora.

Beste Autonomia Erkidego batzuetako bidaiarien artean, Madrildik, Andaluziatik eta Asturiasetik datozenen kasuan portzentajezko hazkundera handiagoa da; aitzitik, batik bat, Kataluniatik eta Gaztela eta Leonetik etorritakoen kopuruak behera egin du. Atzeritarren artean, Erresuma Batua, AEB, Kanada eta Erkidegokoak ez diren Europako beste herrialdeetako atzeritarren kopurua handitu da gehien. Jaitsiera izan den herrialdeen artean, Frantzia, Alemania eta Italia dira nagusi.

2012ko ekainean 408.828 ostatu-gau izan dira; horrek esan nahi du iazko ekainetik % 0,6ko hazkundera izan dela (hau da, 2.314 ostatu-gau). Ostatu-gauen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian (% 4,8); Araban, iazko ekaineko balioak errepikatu egiten direla esan dezakegu (% 0,1), baina Gipuzkoan % 4ko jaitsiera izan da.

EAE osoan, batez besteko egonaldiaren iraupena % 2,2 handitu da 2011ko ekaineko datuekin alderatuta: 2011n 1,84 egun eta 2012ko ekainean 1,88 egun. Araban, batez besteko egonaldia 1,81 egun izan da (2011ko ekainean 1,78); Bizkaian, 1,81 egunetik 1,86 egunera igo da eta, Gipuzkoan, berriz, batez beste 1,91 eguneko egonaldia atera da, 2011ko ekaineko balioak errepikatuta.

Plazaren araberrako okupazio-mailak % 1,8 egin du gora EAE osoan eta 2012ko ekainaren % 51,28 izan da. Egiaztatu dugunez, igoera hori Bizkaian gertatu da: 2011ko ekainean % 47,68 izatetik 2012ko ekainean % 50,57 izatera igaro da (% 6,1eko hazkundera). Gipuzkoan, aldakuntza negatiboa gertatu da, 2011ko ekaineko % 57,25etik 2012ko ekaineko % 56,67ra, eta Araban ere jaitsiera izan da okupazioan, 2011ko % 43,53tik % 2012ko % 42,37ra.

NEKAZARITZA TURISMOA***Sarrerak % 6,8 jaitsi dira eta ostatu-gauak % 11,6, 2011ko ekaineko datuekin alderatuta***

Ekainean, 11.105 bidaiari-sarrera erregistratu dira EAeko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, 2011ko ekainean baino % 6,8 gutxiago. Lurraldearen arabera, Araban % 8,5eko jaitsiera izan da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 6,4koa, bi kasuetan. Estatutik etorritako bidaiari kopurua % 7,6 jaitsi da EAEn: Araban % 12,1, Bizkaian % 7,2 eta Gipuzkoan % 5,9. Atzerritarren kopurua igo egin da (% 1,7) EAEn; portzentajeaz dezenteko igo dira Gipuzkoan, baina nabarmen jaitsi Bizkaian eta Araban.

EAeko nekazaritza-turismoko establezimenduetan 25.038 ostatu-gau erregistratu dira ekainean, hau da, iazko kopurua % 11,6 jaitsi da, urte arteko hazkunde-tasak negatiboak izanik hiru lurraldeetan: Araban % 18,6, Gipuzkoan % 13,4 eta Bizkaian % 2,9.

Bidaiarien batez besteko egonaldia laburtu egin da EAE osoan, 2011ko ekaineko batez bestekoaren aldean. Aurreko urtean 2,38 egun ziren eta aurtengo ekainean 2,25 izan dira. Araban % 10,7ko jaitsiera dago, 2011ko ekaineko 2,42 egunetik 2012ko ekaineko 2,16ra. Gipuzkoan % 7,3ko jaitsiera izan da, 2,45etik 2,27ra; eta Bizkaian batez besteko egonaldia % 3,6 luzatu da, 2011ko ekaineko 2,21 egunetik aurtengo ekaineko 2,29ra.

Plazaren araberako okupazio-maila % 12,4 murriztu da, % 23,42tik % 20,52ra jaitsita; Gipuzkoan (% 19,4) eta Araban (% 14,3) izandako jaitsieren eraginez gertatu da hori. Bizkaian, ordea, % 1,2ko igoera izan da.

1. taula: Euskal AEko hotel eta nekazaritza turismoko establezimenduak Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA / ÁLAVA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	06 2012	(%)	06 2011	(%)	Δ %	06 2012	(%)	06 2011	(%)	Δ %	06 2012	(%)	06 2011	(%)	Δ %	06 2012	(%)	06 2011	(%)	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	408.828	100	406.514	100	1	58.105	100	58.042	100	0	193.763	100	184.975	100	5	156.960	100	163.497	100	-4
Estatukoak	255.681	63	258.545	64	-1	42.138	73	44.366	76	-5	125.170	65	117.669	64	6	88.373	56	96.510	59	-8
Atzerrikoak	153.147	37	147.969	36	3	15.967	27	13.676	24	17	68.593	35	67.306	36	2	68.587	44	66.987	41	2
Hiriburua	263.320	64	253.888	62	4	44.190	76	40.815	70	8	128.028	66	121.661	66	5	91.102	58	91.412	56	0
Litoral	45.346	11	46.834	12	-3	-	-	-	-	-	12.939	7	13.264	7	-2	32.407	21	33.570	21	-3
Barnealdea	100.162	24	105.792	26	-5	13.915	24	17.227	30	-19	52.796	27	50.050	27	5	33.451	21	38.515	24	-13
BIDAIA RIEN SARRERAK	218.040	100	220.414	100	-1	32.104	100	32.552	100	-1	103.900	100	102.414	100	1	82.036	100	85.448	100	-4
Estatukoak	138.530	64	141.656	64	-2	23.718	74	24.658	76	-4	67.773	65	66.767	65	2	47.039	57	50.231	59	-6
Atzerrikoak	79.510	36	78.758	36	1	8.386	26	7.894	24	6	36.127	35	35.647	35	1	34.997	43	35.217	41	-1
Hiriburua	134.279	62	133.128	60	1	22.491	70	20.846	64	8	65.532	63	64.938	63	1	46.256	56	47.344	55	-2
Litoral	24.071	11	23.602	11	2	-	-	-	-	-	7.774	7	7.910	8	-2	16.297	20	15.692	18	4
Barnealdea	59.690	27	63.684	29	-6	9.613	30	11.706	36	-18	30.594	29	29.566	29	3	19.483	24	22.412	26	-13
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,88		1,84		2	1,81		1,78		2	1,86		1,81		3	1,91		1,91		0
BETETZE-MAILA PLAZAKA	51,28		50,38		2	42,37		43,53		-3	50,57		47,68		6	56,67		57,25		-1
Hiriburua	58,81		57,15		3	45,63		45,73		0	58,53		55,87		5	68,92		66,62		3
Litoral	51,36		50,93		1	-		-		-	34,39		33,72		2	63,96		63,80		0
Barnealdea	38,35		39,07		-2	34,54		39,06		-12	41,64		38,23		9	35,54		40,22		-12
BETETZE-MAILA GELAKA	62,17		60,96		2	51,18		50,88		1	63,94		60,56		6	65,14		65,76		-1
Hiriburua	72,26		69,88		3	56,75		54,75		4	74,76		70,65		6	79,66		77,62		3
Litoral	58,77		58,24		1	-		-		-	40,34		40,32		0	70,19		69,53		1
Barnealdea	45,89		46,43		-1	37,20		42,84		-13	50,37		47,13		7	43,66		47,00		-7
NEKAZARITZA TURISMOA																				
GAUALDIAK	25.038	100	28.332	100	-12	4.648	100	5.707	100	-19	7.363	100	7.581	100	-3	13.027	100	15.044	100	-13
Estatukoak	20.400	81	24.265	86	-16	3.834	82	5.312	93	-28	5.773	78	6.358	84	-9	10.793	83	12.595	84	-14
Atzerrikoak	4.638	19	4.067	14	14	814	18	395	7	106	1.590	22	1.223	16	30	2.234	17	2.449	16	-9
BIDAIA RIEN SARRERAK	11.105	100	11.919	100	-7	2.154	100	2.355	100	-9	3.212	100	3.433	100	-6	5.739	100	6.131	100	-6
Estatukoak	9.653	87	10.442	88	-8	1.861	86	2.117	90	-12	2.790	87	3.007	88	-7	5.002	87	5.318	87	-6
Atzerrikoak	1.452	13	1.477	12	-2	293	14	238	10	23	422	13	426	12	-1	737	13	813	13	-9
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,25		2,38		-5	2,16		2,42		-11	2,29		2,21		4	2,27		2,45		-7
BETETZE-MAILA PLAZAKA	20,52		23,42		-12	17,63		20,57		-14	19,71		19,48		1	22,34		27,71		-19
BETETZE-MAILA GELAKA	22,73		25,93		-12	18,77		22,66		-17	21,82		21,85		0	25,16		30,58		-18

Iturria: EUSTAT. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Informazio gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

ETHI-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua